



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## JAKINARAZPENA

Herritar agurgarriak:

Koronabirusaren pandemiak sortu duen egoerari aurre egiteko eta EUDELen aholkuei kasu eginez, honako erabakiak hartu ditu Alkizako udal-gobernuak:

- **Aurreikusita zeuden kultur ekintza guztiak bertan behera** geratuko dira behin-behinean. Dagokionean, herritarrei adostutako data berriak jakinaraziko zaizkizue.
- Martxoaren 13tik aurrera, eta kontrakoa jakinarazi bitartean, **ezingo dira hurrengo udal azpiegiturak erabili:**
  - Don Juanena eraikineko bilera-gelak, Jubilatuen Txokoa, ikasteko gela eta gimnansioa.
  - Erretore-etxeko liburutegia eta *salto-gela*.
- **Gainerako udal zerbitzuak, momentuz, lanean** arituko dira. Edozein kasutan ere, ahal den neurrian, egin beharreko gestioak telefono edo e-mail bidez egitea eskatzen dizuegu herritarroi.
- Bide batez, **Aiztondoko Klasika** txirrindularitza proba **bertan behera** geratu dela jakinarazten dizuegu.

Egoera honek martxoaren 30era bitartean irautea aurreikusten bada ere, baliteke salbuespen neurriek luzatu behar izatea. Edonola ere, sor daitezkeen aldaketen berri emango zaizue jakin ahala.

Azkenik, osasun-arduradunek eman dizkiguten aholkuak jarraitzea gomendatzen dizuegu. Egoeraren larritasuna ikusita, modu arduratsuan jokatzeko ezinbestea dela uste dugulako, aipatutako neurriak hartu ditugu. Ulertuko duzuelakoan, mila esker.

ALKIZAKO UDAL-GOBERNUA

